

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

2018rako udal aurrekontuko kredituak aldatzeko 13/2018 zenbakidun espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik. Hasierako onarpena. (Espedientea: 2018/33/S200)

Laudio Udalaren Udalbatzak, 2018ko ekainaren 7 egunean egindako aparteko osoko bilkuran, erabaki zuen onartzea hasiera batean 2018rako udal aurrekontuko kredituak aldatzeko 13/2018 zenbakidun espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik.

Kontutan izanik Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 15 artikuluan erabakita datorren legez, honako iragarki hau argitaratu da hamabost (15) eguneko epean jendaurrean erakusteko. Epe horren barruan legitimitatez interesatuta daudenek aztertu ahal izango dute eta Udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. 2018rako udal aurrekontuko kredituak aldatzeko 13/2018 zenbakidun espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik, dagokion dokumentazioarekin batera, Udaletxeko Ogasun eta Ondaren bulegoan, Herriko Plaza, bigarren solairuan, egongo da interesdunen eskura.

a) Erakusketa eta erreklamazioak aurkezteko epea: hamabost (15) lanegun iragarki hau ALHAOn argitaratzen den hurrengotik hasita.

b) Non aurkeztu: erregistro orokorra.

c) Zein Organori erreklamatu: udalbatzari.

Epe horretan zehar erreklamaziorik ez bada aurkezten, 2018rako udal aurrekontuko kredituak aldatzeko 13/2018 zenbakidun espedientea, kreditu gehigarriak emateagatik, behin betiko onartutzat joko dira. Erreklamaziorik balego, Udalbatzak erabakiko ditu hilabeteko epean berriazko erabaki bitartez eta erabakia behin betiko onartuko da.

Laudio, 2018ko ekainaren 14a

Alkate-udalburua

JON IÑAKI URKIXO ORUETA